



TOKIKO MERKATARITZA

'URKA BONOAK' ETA 'MERKATU TXIKIA', TOKIKO EKOIZLEAK ETA NEGOZIOAK IKUSARAZTEKO

IRAILEAN, TOKIKO 18 NEGOZIOTAN EROSIZ GERO, OPARI-BONUAK ESKURATU AHAL IZANGO DIRA; ETA, ONDOREN, TOKIKO PRODUKTUEKIN EGINDAKO SASKIAK ZOZKATUKO DIRA AZOKAREN EGUNEAN.

Urkabustaiako Udalak Merkatu Txikiaren edizio berri bat antolatu du, tokiko ekoizleak eta negozioak ikusarazteko. Ekitaldi honen hirugarren edizioa irailaren 24an izango da, Izarra Plazan, eta bertan, tokiko 11 ekoizle-standaz gain, musika, kale antzerkia eta nagusientzako eta txikienezko beste jardura batzuk izango dira (laster jakinaraziko da behin betiko egitaraua).

Irailako azken igandeko azokan (Merkatu Txikia) ikusgai eta salgai egongo diren produktuen artean, besteak beste, gazta, pastelak, frutak eta lekaleak, garagardoa, loreak eta artisautza erosi ahal izango dira.

Bonu eta produktuen zozketa

Gainera, edizio honetako berrikuntza nagusia irailan martxan jarriko diren 'Urka bonuak' sortu eta banatzea izango da. Hala, 13 euroko gutxienezko gastua egiten duten pertsonak 'Urka bonuen' zozketan sartu-



ko dira, kanpainari atxikitako negozioen eta ekoizleen produktuak eskuratzeko zein ekoizle eta negozio berberen produktu edo zerbitzuen zozketan parte hartzeko balizkoak izango direnak. Udalak bideratutako partidaz gain, atxikitako negozioek kanpainarako produktuak eman dituzte.

Bonoen eta loteen zozketa Merkatu Txikian egingo da, irailaren 24an.

Atxikitako negozioak eta ekoizleak

Bonoen kanpainari atxikitako ekoizle eta negozioak honako hauek dira: Lola Enea, Bar Frontón, Izarra erretegia, La Fonda taberna, Nordiska taberna, Tap Room Baias, Bazterra gaztak, Antzina gaztak, Goiuri gozotegia, Eskauturri, Urtaran okindegia, Coviran Urquijo, Luis Mari fruta denda, Monika ile apaindegia, Izpiliku, Kimua, Sonia Ruiz de Arkaute eta Kuia kalabaza lanparak.

ESTATUKO HAUTESKUNDEAK

EH BILDU IZAN DA ALDERDI BOZKATUENA URKABUSTAIZEN


ALKATETZA DUEN TALDEAK 318 BOTO JASO DITU.

Estatuko hauteskunde berriek EH Bilduk Urkabustaiaren dituen herritarren babesa berretsi dute.

Boto gehien jaso dituen alderdia EH Bildu izan da (318). Ondoren, EAJ (156), PSOE (120) eta Sumar (87) daude. Urrunago daude PP (49) eta Vox (14). PACMA (3), Escaños en Blanco (2) eta Frente Obrero (1) alderdi txikiagoek ere botoak jaso dituzte.

Boto baliogabeak 3 izan dira, eta boto zuri bat ere jaso da. Abstentzioa %29koa izan da.

Espainiako Kongresurako hauteskundeak 2023 - Urkabustai



MERKATARITZA ERABILERRARAKO LOKALIK EZ DAGO UDALERRIAN

HAINBAT EMAKUME EKINTZAILEK URKABUSTAIZETIK KANPO ERAMAN BEHAR IZAN DITUZTE BEREN NEGOZIO PROIEKTUAK.



Urkabustaizko Udala eta Gorbeialdeko Kuadrillako Ekonomia Sustatzeko Bulegoa kezkatuta daude kuadrillako hainbat udalerritan lokalik ez dagoelako.

Azken urteotan, hainbat ekintzailek Urkabustaizen ireki nahi izan dute beren lokala negozioak abian jartzeko, eta ezinezkoa izan zaie, gaur egun ez baitago horretarako lokalik. Azken bi kasuak

Caostura eta Uxalai izan dira, Urkabustaizen nahi zuten bezala finkatu ezin izan diren arropa eta osagarrien bi negozio. Negozioa ezin zuten beren bizilekuan ireki, koadrilatik kanpoko beste herri batera joan behar izan dute, joan-etorrien gastuak gehituta.

Premiazko konponbideak bilatu

Udalak, ezer baino lehen, txalotu egin

nahi ditu beren negozioak sortu eta herrira ekartzea erabaki duten emakume ekintzaile horiek, eta kezkatuta agertu da orain arte ezin izan dielako lagundu. Hala ere, udal erakundeak ez du baztertzen arazo honi premiazko irtenbideak bilatzeko neurriak hartzea.

IRAUNKORTASUNA

MARTXAN DA IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO GUNEA

UGARTE KALEKO APARKALEKUAN DAGO.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune berria uztaillaren 27tik dago erabiltzeko prest. Ugarte kaleko aparkalekuan dago, eta, erabili ahal izateko, Place-to-plug plataforma erabili behar da, karga puntuaren posterraren QR kodetik deskarga daitekeena.

Neurri honekin, Udalak beste urrats bat eman nahi du klima aldaketa arintzeko bidean mugikortasun garbiaren aldeko

apustua eginez. Zerbitzu hau posible izan da Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun eraginkor eta iraunkorrerako pizgarrien programari esker (Moves III), Europako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruko.



BAKARRIZKETAK, KONTZERTUAK ETA ANTZERKIAK EMANGO DIOTE AMAIERA 'KULTURKA' PROGRAMARI

24 KULTURA HITZORDU BAINO GEHIAGO ANTOLATU DIRA MAIATZA ETA
ABUZTUA BITARTEAN.

Udalak, aire zabalera irteteko eta gozatzeko urtarorik aproposena aprobetxatuz, 'Kulturka' izeneko jarduera programa zabala antolatu zuen, maiatzaren 19an hasi eta abuztuaren 11n amaituko dena.

Programa zabala izan da diziplina, publiko eta ezaugarrietan, eta poesia, dantza, antzerkia, ipuin kontaketa, kultura artekotasuna, film laburrak, kontzertuak, astronomia eta beste hainbat barne hartu ditu.

Lau ekitaldi abuztuan

Eta saioaren azken trakari dagokionez, aste honetan bertan Txita Burguera bakarriketaginez komikoaz gozatzeko

aukera izango da. Ondoren, Joni Txintxes eta Billi Ladillaren kontzertua izango da. Bilboko eta Gorbeialdeko kideek osatzen duten taldeak country rock-and-roll emanaldia egingo du. Bi emanaldiak Txiringitoan izango dira.

Ostiralean Urkabustaizen lurreratuko da Ana Ganuza eskarmentu handiko musikaria eta 'De mi tierra a México' ikuskizuna eskainiko du. Kontzertua Nordiska tabernan izango da 20:00etan.

Azkenik, abuztuaren 11n, Ramiro Vergazek 'White Bottom' ikuskizuna eskainiko du, kale antzerkia, zirkua eta umorea batzen dituena. Emanaldia Plaza Berrian izango da 20:00etan.

Abuztuak 4 Agosto
20:00
Nordiska taberna



Abuztuak 3 Agosto GAZTELANIAZ
20:30
Ostuño
Publiko gazte eta heldua /
Público joven y adulto



Abuztuak 11 Agosto
20:00
Plaza berria/ Plaza nueva

OSTUÑOKO ATARIPERA KO ITXITURA BAT EGOKITU DA

**HOBEKUNTZA HORRI ESKER,
KLIMATOLOGIATIK BABESTUTAKO
EKITALDIK ANTOLATUKO DIRA.**

Ostuñoako terraza aspalditik da gune erakargarria herrian hainbat kultura eta aisialdi jarduera garatzeko. Baina, zalantzarik gabe, bazuen handicap garrantzitsu bat: albo batean eguraldiaren menpe egotea, eta horrek askotan erabilera baldintzatu du.

Obra txikietarako dirulaguntza

Zorionez, iaz Udalak dirulaguntza eskatu zion Arabako Foru Aldundiari esparruaren alboko estaldura egiteko. Estaldura sistemaren gastua 11.725 eurokoa izan da, eta Arabako Foru Aldundiak emandako Obra txikien partidaren dirulaguntza 10.396 eurokoa izan da.

Estaldura berria dagoeneko jarrita dago; hortaz, laster bertan kultura eta aisialdi ekitaldien eskaintza zabalaz gozatzea espero dugu!



Hemengo eta Hango Emakumeak

YOLANDA URARTE ALONSO

(VITORIA-GASTEIZ, 1968)



Albaitaritzan lizentziatu zen eta Landa Garapeneko Masterra egin zuen. Gasteizko Udaleko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Eskolan egiten zuen lan, eta Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailean ere aritu da lanean, nekazaritzako elikagaien industrien eskola batean hezitzaile gisa. EHNE Nekazaritza Sindikatuan lan egin zuen, hezitzaile eta koordinatzaile gisa.

2006an landa-ostatu bat ireki zuen eta Trebiñun landa-taxi lizentzia duen bigarren emakumea da.

Hilabeteetako hausnarketa egin eta gero, estrategikoki erabaki zuten hiru emakume joango zirela zerrendan, bera, Eva Lopez de Arroyabe eta Nieves Quintana, eta aurrekari bat ezarri zuten hurrengo hauteskundeetako hautagaitzetan emakumeen presentzia normalizatzeko. Bere hautagaitzak eta taldearen proiektuak irabazi zuten. Urartek historia egin zuen, Arabako nekazari eta abeltzainen zerbitzura hogeita hamar urte baino gehiago daramatzen UAGA sindikatuko lehen emakume presidentea izan baitzen.

Se licenció en Veterinaria y realizó un Master de Desarrollo Rural. Trabajaba en la Escuela de Industrias Agroalimentarias del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz donde también ha trabajado en el Departamento de Promoción Económica y Empleo como formadora en una escuela de industrias agroalimentarias. Trabajó en el sindicato Agrario EHNE de formadora y coordinadora. En 2006 abrió un alojamiento rural y es la segunda mujer con licencia de taxi rural en Trebiño

Trás un trabajo de reflexión decidieron estratégicamente que irían 3 mujeres en la lista, ella, Eva Lopez de Arroyabe y Nieves Quintana, sentando un precedente para normalizar la presencia de mujeres en las candidaturas de las siguientes elecciones.

Su candidatura y el proyecto de su equipo ganaron. Urarte hizo historia al ser la primera mujer presidenta de UAGA organización sindical con más de treinta años al servicio de personas agricultoras y ganaderas de Álava.